



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2008/09 denboraldia

28 ZK.DUN GUTUNA

EUSKADIKO GAZTEEN LIGARAKO IGOERA-ALDIA

Datorren denboraldian Euskadiko Gazteen Ligara igoko diren bi taldeak zein izango diren zehazteko, eta Batzorde Nagusian hitzarturiko txapelketa-oinarriei jarraiki, igoera-aldia antolatu da, honako arauak oinarri harturik:

1.- Parte-hartzaileak

Lurralde bakoitzeko maila goreneko Gazteen Ligan bigarren postuetan sailkaturiko taldeak:


C.D.F. San Martin	(Alava)
Santutxu F.C.	(Bizkaia)
Ordizia K.E.	(Gipuzkoa)

2.- Txapelketa-sistema

Izendaturiko formularen bidez egingo da (HIRU BATEAN). Partidek berrogeita bost minutuko iraupena izango dute. Maiatzaren 30ean jokatuko dira Altamira Zelaian (Ordizia). Partidak honako ordenan jokatuko dira:

Santutxu F.C. – C.D.F San Martin	16,30 ord
Galtzaile 1º - Ordizia K.E.	17,30 ord
Irabazle 1º - Ordizia K.E.	18,30 ord

.../...



3.- Arbitrajea

Partidak zuzentzeko Lurralde Maila Goreneko lau arbitroek aukeratuko dira. Gastuak Euskadiko Federakundearen pentzudakoak izango dira

4.- Zigorrak


Txapelketaren ezaugarriak direla eta, Ohiko Ligaren zigorrek ez dute ondorerik izango bertan. Zigor horiek hurrengo denboraldian kontuan hartuko dira.

Aurrekoa jakinarazi zaie parte hartuko duten klubei, Lurralde Federakundeei eta Euskadiko Arbitroen Batzordeari, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak sor ditzan.

Bilbo, 2009ko maiatzaren 25a

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA

IDAZKARI NAGUSIA



EUSKADIKO GAZTEEN LIGARAKO IGOERA-ALDIAREN ARAU OROKORRAK, "HIRU BATEAN" IZENeko SISTEMAREN ARABERA.

JOKALARI KOPURUA

Talde bakoitzak 18 jokalaria aurkeztu ahalko ditu, gehienez, txapelketa osoan joka dezaten.

JOKALARIEN ALDAKETAK

Partidetan, gehienez, hiru aldaketa egin ahalko dira. Ordezkoa, gehienez, zazpi izango dira.

KANPORATZEAK

Lehenengo partidaren kanporaturiko jokalaria oro ezin izango da bigarren partidako jokalaria-zerrendan sartu, eta beste batez ordeztu beharko da.

BERDINKETAK

Balazko berdinketak EFF-k indarrean duen Araudiaren III. Liburuko 35.4 artikuluan ezarritakoaren arabera ebatziko dira:

- c) Aldian jasotako eta egindako golen arteko alde handiagoa duen taldea lehenetsiko da. Txapelketako partida osoak kontuan harturik.
- d) Gol gehien egin dituen taldearen alde.

Partida bakoitza bukatutakoan, emaitza zeinahi dela ere, bost jaurtiketa egingo dira penalti-gunetik, taldeetako batek irabazten duen arte. Emaitza hori kontuan hartuko da aldiaren sailkapen nagusian gerta daitezkeen berdinketak desegiteko azken aukera gisa.

Era berean, lehenengo partidaren berdinketarik gertatuz gero, jaurtiketa horien bidez erabakiko da zein den irabazlea, bigarren partida jokatze aldera.

BALOIAK

Beroketa egiteko, klub bakoitzak egoki irizten dituen beste baloi eramango ditu.

-O-O-O-O-O-O-O-O-